

8. FUNTSEZKO JARDUERAK – INKLUNET

Gure proiektua ondo funtzionatzeko eta erabiltzaileei benetan laguntzeko, INKLUNETek hainbat jarduera egin behar ditu. Hauek dira guretzat funtsezkoenak:

1. Aplikazio irisgarria diseinatu eta garatzea

Gure aplikazioaren bihotza da, eta ondo funtzionatzea da gure lehentasuna.

Horretarako:

- Diseinua erraza eta intuitiboa egin behar dugu.
- Azpigitulu automatikoak eta Zeinu Hizkuntzako laguntza txertatu.
- Ahots bidezko nabigazioa ondo integratu.
- Erabiltzaileekin probak egin, arazoak eta akatsak aurkitzen eta kontuan hartu akats hauek aurrera jarraitzeko eta akatsak ekiditzeko.

2. Eduki inklusiboak sortzea

Plataforman erabiltzaile guztiek ulertu ahal duten edukia behar da. Horregatik:

- Zeinu Hizkuntzan bideoak grabatuko ditugu.
- Irakurketa errazean testuak prestatuko ditugu.
- Tutorial sinpleak sortuko ditugu aplikazioa erabiltzen laguntzeko.

3. Irisgarritasunari buruzko sentsibilizazioa egitea

INKLUNET ez da aplikazio bat bakarrik, baizik eta jendea kontzientziatzeko modua ere bai.

Horretarako egingo ditugu:

- Sare sozialetako kanpainak.
- Elkarrekin elkarlanak.
- Tailerrak edo hitzaldiak, gure mezua zabaltzeko.

4. Plataformaren mantenua eta eguneraketak

Aplikazioa beti ondo ibil dadin:

- Eguneraketak egingo ditugu.
- Segurtasuna zainduko dugu.
- Arazoak daudenean konponduko ditugu.
- Zerbitzariak eta sistema orokorra eguneratu eta zaindu.

5. Komunitatea gainbegiratzea eta dinamizatzea

INKLUNETen parte diren pertsonak ondo egon daitezen, beharrezkoa da:

- Foroak eta iruzkinak moderatzea.
- Giro segurua bermatzea, errespetua beti zainduz.
- Jarduera interesgarriak antolatzea komunitatea aktibo mantentzeko.

6. Erabiltzaileei laguntza ematea

Gure aplikazioa guztientzako da, eta batzuk laguntza gehiago beharko dute. Horregatik:

- Txat, E-mail edo telefono bidez laguntza emango dugu.
- Tutorialak eta gidak sortuko ditugu.
- Elkarte eta erakundeei prestakuntza eskainiko diegu.

7. Aliantzak mantentzea

Proiektua aurrera eramateko ezinbestekoa da besteekin lan egitea:

- ONCE, ASPACE, eta Euskadiko elkarte gehiagorekin harremana mantentzea.
- Teknologia enprekin koordinatzea (azpтитuluak, ahotsa, apparen garapena...).
- Udal eta erakundeekin proiektuak negoziatzea.



BIBLIOGRAFIA:

- García,B.-Tena, D.-Bernabeu, M^a E.- López, C. (2025). Itinerario personal para la empleabilidad. TULIBRODEFP.
- STARTINNOVA plataformako material.
- <http://blog.hubspot.es/sales/modelo-canvas>
- Logoa: Lucia ia